

Poeta European zehar

Luis Mari MUJKA

Italia aspaldiko oroitetan

Italiako nire lehen oroigarriak orain hogei eta hamabost bat urtekoak dira, gutxi gora-behera. Ale, lau urtez bertan estudiante modura bizitzeko parada ukan nuen –eta jesuiten Gregoriana Unibertsitatean teologiako ikasketak osatu nituen–, eta garaiko Italiak zeharo xarmatu ninduen. Nire egoitza Via Nomentanatik hurbil zegoen, nazio anitzetako gazteak biltzen ginela sakramentinoen egoitza zabalean. Ikastegi barruan italiara eta frantsesa ziren mintzaira ofizialak, eta ikaskideak kanadiarrak, australiarrak, italiarrak, frantsesak, brasildarrak eta bestelakoak –euskaldunez gain– izan nituen. Asteburuetako astia Erromako elizak, katakunbak, museoak –okitzeraino batzuetan– behatzeko hartzen nuen.

Ene oroimenean oraindik Via Appiako pinuak, Piazza Venezia, Velletri, Albano edo Castelli Romani deituriko Erroma inguruko hiri tiplak. Unibertsitatetik oso hurbil genuen Fontana de Trevi famatua (nora ikastorduen tarteko paseoa joan ohi ginen).

Esan beharrik ez Italia sorpresa hutsa bilakatu zitzaidala, eta ezin izan ni indiferente –edo muzin egin– bere edertasun joriari. Edonon kausitu nituen bertan harlandu ederrak, edonon dastatu alorren argi eta kolorea, edonon gustatu italiarren izaera arrai eta adeitsuak.

Unibertsitatean jaso nituen teologia berriaren hasimasiak, korronte aurrerakoiak –eta, orobat, bertan ezagutu Zapelena aita jesuita nafarra (euskal pilotarien pilotak ohe azpian altxor bezala gordetzen zituen)–; bertan, orobat, harremana izan nuen aita Goenaga azpeltiarrarekin –bere irribarre etengabekoaz–, edo eta Arruti anaia legoa-

rekin, euskaldunoi mesedeak egiteko beti prest azaltzen zela. Orduan estudiante teologoentzat sotana beltzez jantzirik ibiltzea derri-gorrezkoa zen –eta, alafade, zelako lotsa nirea kalean klerigoen sotana beltza –eta kapelu beltz zapalarekin– jantzita ibili-beharragatik–. *L'Unitá*, egunkari komunista irakurtzea espreski debekatua genuen, eta irakurriz gero *ipso facto* (ze gauzak itsuki sinesten genituen garaiko hertsitasun moral hartan...) bekatu larrian erortzen zela bat uste izaten genuen, eta gu halako debekuei esanekoak ginen erabat.

Uda-partean atsegin izaten zitzaidan bi hilabete Castel Gandolfoko aintziraren goialdean eraikitako villa batean oporrak igarotzea. Castel Gandolfoko aintzira Erroma inguruko muinotarte batean dago, eta bertako pinuen berdoxtasun iluna, lakuaren ur geldia eta izadiaren xarma nik idatziriko lehen liburukian, nolabait, islatuta dago, ze bertan sortu nuen *Bide-giroak* izeneko prosazko poema. Liburukiak Italiako paisaiaren ukitua du, zinez, nahiz poemategiko eszenategia urruneko Euskal Herriaren ebokatuan kokatu, dagoeneko, 1962 urterako. Castel Gandolfotik txangoak egiten genituen –ikasle ginenok– aldameneko hiri eta landetara –Velletri, Albano, Nemi eta urrunagoko Anzziora, adibidez–.

Erroman hainbeste tenplo, imajina eta edergai ikusiz ikonoklasta bilakatzen hasi nintzen, artearen biluztasuna bilatuz –non Italiak arriskua duen, presezki, artelanen oihanean bat galdua –eta ok egin da– suertatzeko. Beraz, ederraren aseaz elementaltasuna bilatzeari ekin nion, erlantz, moldura eta koska landuen euforia gehiegikotik biluztasunera ihes egiten, Porfirioren *omne corpus fugiendum est* delakoa, nolabaitean, jarraituz. Eza, soiltasuna, gauza erantzien metafora antsiatzen du batek imajinen mozkorretik igarotzen denean... Hortik, gehienbat, nire geroko barrokoarekiko arbuioa.

Uda-partean ia egunero jaisten nintzen aintzirara igeri egitera. Behin batean –ze sorpresa!–, Joanes XXIII.a aita santua (eta ez beste edozein klerigo, kalonje edo monsignore) topatu nuen lakuaren ertzean sekretario batekin paseoan, eta sotana beltza zeraman jantzia. Pontifize apalak ihes egin nahi zuen punpezia orotik, eta edozein herrixkaetako parroko baten kerantza zuen bere janzkeran. Paraje hartan ondu nituen, goian aitortu dudanez, ene lehen poeta-jalgipe-nak, inguruneak hartara bultzatuta, eta pribilegiatua sentitzen nintzen halako lekuan egoteagatik. Nire Areatzako lehen gogoeta –eta dasta-

keta– poetikoek han izan zuten segida eta garapena, eta han sumaturikotik atera zen *Bide-giroak* nire lehen liburukia.

Txangoetan oso gogoan dut udaberri batez Capri irlara eginikoa. Tirrenoko ur gardenetan Capri Lord Byron, Oscar Wilde, Richard Wagner edo Alexandre Dumasen atsedentoki izan zen. Capri kolore, lorategi, etxe zurien xarma eta sentsualitatez betea azaldu zitzaidan, eta, bereziki, mendi goitik itsas-zolaren urdin gordin eta txukuna behatu ahal izan nuen. Egun hartan kolore-hurrupatzeak horditua utzi ninduen, sentsualitate kromatikoz jabetua.

Beste bidaia bat Italian Milanora eginikoa izan zen, katedralaren kapritxo litiko apartak bere teilatuko orratz-basoarekin txunditua uzten ninduela. Katedralak ehun eta hogeita eta hamabost dorre tipi ditu, eta bi milatik gora estatua (barruan bost nabe handi eta ehun eta berrogei eta hamazazpi metroko altuera ematen dela). Bertako filigrana eta moldura gotikoen maisutasuna *élan* bat da bisitariarentzat. Sentsazio aberats berak gero Venezian Palazzo Ducale, Campanile, Santi Giovanni e Paolo, eta, batez ere, San Markos basilika eta bere plaza ikusterakoan (azken honek ehun eta hirurogei eta hamabost metroko luzera –eta ia laurogeiko zabalera– duela). Basilika barruan, berriz, erretaulak bizantziar edergailuak, harri bitxi anitz, eta X. eta XIII. mendeetako laurogei esmaltezko medailoi aparta. Ertaroko giro errefinatua nabarmen, orobat, jauregi, kupula, mosaikoen joko eta eliz erretauletak imajinekin. Pilareek kapitel erromatarrak, bizantziarrak eta gotikoak dituzte anitzetan.

Orduetik hona hainbat urte pasata, nire eskuartera sorpresaz –eta modurik zoroenean– tiradera batetik (eta oraindik ez dakit nola zegoen bertan idazkia...) Erroman nirekin bizi izaniko lagun bati etxetik bidalitako gutun bat atera zait –familiako euskara freskoan, eta ohiko Aranaren ortografi arauetatik at, izkiriata–. Sorpresa ederra halakoa gaur irakurri ahal izateko. Gutunaren euskara, antza, Gipuzkoako goierrikoa da... Ze altxor dialektologiko eta literaturaz-koal

“Nola muz aiz, moteill, paaje oitan? Beguira, guc berri charrac dizquiau, eraneun il baiuan abuelo Joxe gurea, ta, sinisttu'idac, icu-llluco beyac ere orroka eon ittuau gau osoan echeco jaune mundu ontatic bestera jun tzala sumau zuteneen... Pintto beyac bota zizquian marru aundienac. Zaldie ee capristrue lepotic quenduta canpora ataa naian ibilli uan, ta, azquenen, potzierto, catea ausi zian, eta lau ordu pasa zetuan basoon galduta –guc nun zeillen ee ez guene-

quiala... Ce dolorea gurea aitajaune Joxe beste mundura –Mateo
 Chistu ondoon dola edo– jun tzaigunetic! Oso cariñosoa izan ua,
 cuanto, neequin batez ee, eta acordatcen nauk nola chiquitan bere
 ocotz bizardune bere masaillera arrimatcen zidaan, baño oso xuabe,
 bizarraquin miñic ez eitteco ... Ez al diac siñisten? Abuelo Joxeren
 gorputze elizaa gure aitac, echeco osoac eta bi gazteoc bizcarreen
 bajau gueñian, ta, ba al daquic ze descalabroa pasau guenun –gurdi-
 bidea locatzez bustita zeolaco– (nola esango 'iat baa, milla demo-
 niol) irristau eiñ gueñian, eta, zast, il-caja lurrera etoi zatzaiguan ta
 an azaldu uan abuelo Joxe gurea irripar aundia arpegiin zuela cajaren
 tapa irekitzean. Gizajoc Ama Birjiñe Carmengoaren escapularioa le-
 poon trabatua zeuquean, ta Abraham edo elizetan azaltzen dan
 Moises bezelacoa ematen tzian, preciso, arpegui zabal ta gozo are-
 quin... Trumoica ee asi uan –aldagoie zeruun jotzen zola–, ta gaizqui
 ibilli guenittuan, cuanto, elizaa garaiz allatceco; jendea kalostran
 zeoan zai orduaco, gaizqui-esaca. Barcau, baño ezin diat aaztu,
 igoalmente, abuelo gureac gosaltcecoan –bere magalen jarrita- talo-
 zopak catillutik artcen uzten zidala; batzutan, jaquin tzac, orratio,
 betazalac icuttzen nizkioan, ta bera comosino gueatcen uan... Az-
 quenalden, gizajoa, plumoietatic jota zegoan –eztula mozcoc batec
 bezela astun botatcen zola–, eta gure amac demanda eitten tzioan
 zigarroa aotik quentcen ez zolako (“plumoiac armaiarma-sarez bete-
 ta dauzkatzu” esaten tzioan asarre). Bere gaitza kantzerra izan dek,
 ta gizajook ia masaill-erdia xomorroz janda becela zeuquean, Amac
 esaten tziguc Jainkook bere miserikordiin artu dola onezqueo, ta,
 naiz zigarroaquin berari ainbeste tranpa eiñ zerun eongo dala, orra-
 tio... Gaur Pintto beye orruca eon dec goiz osoan, ta ez dic ganbela-
 co belarric ee jan nai izan. Ama gureac, baaquic, aragui-pusqueta
 jartcen tzioan masailleen abuelori xomorrook (edo , auscalo, zer
 tzien...) arpeguie aiñ aguro ez jateco, baño, barkau zac konpe-
 satzea, abuelori azquen egunetan suurra ee jaten asi zitzaizkioan
 bicho zital aiec. Alere, abuelo gureac etcian irripar goxoa secular
 galdu... Bera il danetic, eunero sucaldean iru misteriozco errosarioa
 esaten diagu apalduta gero, ta inor ez dec oira juten errezo guztic
 bucau arte. Anai maitea, bacequiat carta au inoiz baño tristeagoa
 izango zaiala, baña guertatuaren –ta estriñagoco gauz batzuun– berri
 eman bare ezin eon izan diat... Amandre Euxtaxik esan tziguc bart
 –oian tzeola– Lizarrabeco cearretan ikusi dola abuelo Joxe egaka –ta

uso batek baño aguroago eitten omen zian egoekin...-. Siñistu zac, coño!"

Gutun hau da Italiarekin loturik geratu zaidan oroigarririk bitxienetakoa da. Maitasunez gordetzen dut tiraderan. Italian igarotako lau urteak atseginak izan zitzaizkidan, eta ene joera edertzaleek asean dastatu zuten bertan, zentzuketara etorria astiro gozatuz. Han hasi nintzen, bestalde, bidaiatzeari gustua hartzen.

Frantzia hurbila eta urruna

Iparraldeko lurak igarota, Landak, Gers, Garonaldea, Albiko parajeak behatzeko parada ukan dut azken udazkenetan. Frantzia ez da Paris edo Il de France delakoa, soilik, Italia Erroma bakarrik ez den modura. Hegoaldean mirestekoak Gaskonia, Languedoc eta Proventzako lurak. Maluraz, frantziar abertzaletasun txaubinistak Frantziaren protagonismoa Paris inguruko kulturari atxikia dio, eta hortik ez zaio deskulturarizazioa baino etorri hegoaldeko Okzitania zabalari. Frantzia hegoaldera nire txangoak lagun mina dudan Luis Haranburu editore eta idazle laoarekin egin ditut, eta biok sentsazio berrien lekuko izan gera batean.

Landetako lautadetan –pinudi eta kresaletan bildurik– esanahi apartako kostaldea kausitzen da. Larrazkenean, Landak eta Gerseko muino apalak –eta berokietako mahasti berdailak– xarma berezia dute. Armagnac eskualdeak ardo eta likoreen bozkario zukutsua eskaintzen dio bidaiariari. Auch, Condom, Eauze aldean estimatzekoak lur ongi zainduak, uzta gizenez beteak. Garona ibaiak zeharkatzen du Gaskonia –Pirinioetan hasita–, eta muga egiten du Languedoc-ekin, nahiz bietan mintzaira beraren segida egon. Mahasti leunez aparte, belardi guri eta forraiak landetan, abelazkuntza eta nekazaritza garatua alorretan.

Nire miresmena areagotzen da Gers-eko Floran monasterioa bisitatzean (lehen *monastegia* idazten genuen gaztelaniar formulatik urruntzearren, eta zer?), b eta ekialderago Moissac-eko komentu zabala. Floran-en *Scoladei*-ko zistertar monjeek eraikiriko komentua, nabe bakarrez eliza, zutabeetan kapitel estilizatu eta bestelako edergarri soiltasunez agrtzen direla. Klaustroan arkuteria ederra, eta zutoin-buruetan landare eta animalien iruditeria nabarra. Sakristian oxi-

bak presentzia berezia du, eta egoitzaren goi solairuan monje-gelen biluztasuna. Monasterioa egun isiltasunez, bakez eta misterioz bete dago, musikazko jardunaldi bereziak eskaintzen direla uda-partean.

Auch-eko katedralak atentzioa deitzen dit hurrengo egunetan, bere gotiko ausart eta aberatsaz. *Auch* toponimoa, entzuna dudanez, Aragoiko *Osca*-k bezala, agian, egungo euskal hitzaren *eusk*-errora garamatza; ez da guztiz baztertzekoa hipotesia, nahiz etimologismoa euskaldun probetxoso askoen eremu labaintsua izan, aspaldidanik. Katedralere koruan zurean landuriko irudi anitz da fineziazko apoteosi xarmant hainbat profeta, sibila, aitagoi, santu eta santa eserleketan moldeaturik erakutsiz (gehiegikeriak jalgitzeko beldurrik gabe, oro ederrezko filigrana eskisito, trintxak landuriko xokomoko delikatu dela). Beraz, 113 eserlekutan 1500 pertsonaia tailaturik azaltzen dira, mitologia eta kondaira biblikoa jarraituz *Eritrea* sibilaren tailak, kasu, dotorezia aparta erakusten du.

Moissac-eko monasterioa, Montauban inguruko goi lurretara hurbilduta, Tarn ibaiaren xokoan eder-gune aproposa da begiontzat. Esaten dutenez, XIX. mendean burdinbidea egiten hasi zirenean, monasterioa suntsitzekotan egon ziren injenieriak, trenbidearen ildo handik igaro nahi baitzen (ze Frantzian ere intelektual idiota askok ez zituen begi onez hartzen monjeen egoitzak...). Behera garaiko kultura hiperlaizista maketsa! Moissac-en aipatzekoak elizaren hegoaldeko ataria (non tinpanoan eskultura erromanikoaren alardea beraldikoa den...), elizaren barrualdea, eta, bereziki, klaustro zoragarria, oro kapitelen nabartasunez hornitua, hau da, animalia, hostaje, joko geometriko, eszena historiko eta Kristoren misterio eta santuen bizitza-erliebez garatua agertzen den. Marmolak, sarkofagoak eta kaparak ere mirestekoa dira, han-hemen.

Eki alderago, aspaldiko kataroen eskualdean, Albiko katedralaren miraria behatzeko parada dugu nik eta lagunak hurrengo egunetan. Katolikoek –kataro herexekak menderatzearen– fedearen apoteosi litikoa eraiki nahi izan zuten, katedrala harlandu eta marrazkien eszenategi harro bilakatuz. 1209 eta 1229 urteen artean (eta katolikoek intolerezia ez zen apalagoa izan) aita santuek gurutzadak antolatu zituzten kataro eta albitar herexeen aurka. Mende osoa behar izan zen katedralaren eleganzia litikoa (herexeen aurkako garaipena oroituz) harrokeriaz eraikitzeko. Tenploa 1480. urtean sagaratu zen –eta jakin, ze zenbakiek balio dute pleonasmorako, ata-

rian bakarrik 96 imajina daude, halako irudizko orgiak begien zorbioa sortzen duela... Eliza barruan, bestalde, Azken Epaia aurkezten duten marrazkiak miniatura huts dira, sotiltasun arras finekoak —ezker-eskuin santu eta kondenatuen tropela Kristo garailearen aldamentara kokatuz—. Eta oraindik hormetan Kristoren misterioei atxikita-ko pinturak. Nabarmenezkoa tenploan gotikoaren menderakizuna, formen errealismo bizia, moldeen trebezia, imajinen plegu-festa.

Iparrera joanda, Paris, Frantziako hiriburua, bigarrenaz ikusteko aukera dut. Aspaldi batean ia urte bi igaro nituen ikasle bezala Sorbona eta Vincennes-ko Unibertsitateetako geletan. Orobat, Hautes Etudes-etako ikastaro batzuk jarraitu nituen. Berrikitan xorgindunau hiriburuak Etoile, Notre Dame, Saint-Denis, La Madaleine, La Sainte Chapelle eta bestelakoak bisitatuz. Paris aristokratikoak, jardinez beteriko hiriak, xarmatzen du edozein bisitari. Nola ez, nik ere banituen klitxeak Paris eta Frantziaren aurka, eta 1968 aldera ezagutu nuen Paris errebolitaria. Geroxeago Sena ibaiaren bazterrak estudiante *tunante* modura korritu nituen, eta auzo latino ezkonformistaren giro hippia ere dastatu, kafetegietako eserlekuetan edozein ideologia estrategijara erakartzen lehiatzen ginela (espaloietako solasaldiak iraultzaren mistika luzatuz...). Zenbat mintzo zoro, estrategia presati, iraultza merke garai haletan... Oroitzen naiz espaloietako jatetxe hailetako menu batez: xerra erreak, *confit de canard* eta arkumea berenjenaz lagundua; eta oraindik frantziar kutsu puntakoago batez beste batzuk: *lapin sauté* (untxia), *poulet* (oilaskoa) “*en cocotte grand mère*” eta oilarra ardotara. Jatoki pollita zen nik aukeratu nuen, itzalpean, eta pintura egin berriak zituen alboko tabikean eskegita. Postretzat zerbait berezia, hau da, *baba á la confiture flambée au rhum* hartuko nuen. Ez zen gutxi izan —eta ez hain garestia—, alajain!

Parisen egonda, buruan nik Mirande euskal poeta, Beuret-ko bulegoan goizero hain malerus sentitzen zena. Bere bertsoak adierazgarri: “*Parisko kale batean / etxe zikiñen ar(t)ean / bat dago zikiñagoa, / iluntzen baidit gogoia / aren aipatzeak berak...*”. Mirande edertzalea emakume lirain eta errazen adiskide ere bazen. Berak kantatu zituen Oianone eta Raymonde emaztekien edertasun somatikoak, eta, orobat, hamaika aldiz izorratua sentitu zen *Euskal Etxea*-ko giro erdaltzalea madarikatuagatik.

Notre Dame da Parisen eraikuntza lirainetakoa hirian bi dorreen linealtasun txairoa, kolorezko beira handi eta xorgintasunez landuriko

irudien magiagatik. Napoleonek, De Gaullek eta beste askok bere nabeen loria bilatu zuten, nahiz Frantzia ofizialki laikoa izan. Katedralak tellatu-hegal eta erlaitzetan baditu gargola bereziak, munstroak, deabruak, irribarre histrionikoa duten imajinak. Ez da nire asmoa Parisen behaturiko ederkizun oro aipatzea, museoak ere kontutan izanda.

Pigallera ere arrimatzen nintzela esan behar, hango emakumeen edertasun erraza begiztatzera. Edaritegjetako argi-klixka gorri, zuri, horietan begia galtzen zitzaidan, eta, berriro, Miranderen poesia nire baitara: "Zoardi zan, / Pigalle-zeruan izarrak / phiztu ziran / -puten sabeelan arno beltza botz-kantuz. / Nihaur kaleetan / aitzina, horditu ezina / puten arno kantariaz...". Zenbat Raymonde llinin eta sensual kale-ertzetan atsegin-emale: "Raymonde, soin humoa, mahats humel / Pigalle-ko mahastietan, / arno indazu nire ahorako / zazpigarren goian izarrak / dakhuskidan!".

Paris hiria utzita, urrunagoko monumentu eta edergarriak ere ikusteko parada nik. Bat, xarmanta benetan, Chartres-ko katedral paregabera, ia beira eta kristala baino ez den kolorezko tenploa. Chartres-ko katedralari, nola ez, beiren apoteosia goretsiz, ondorengo-ena olermenak:

*Chartresko hormek argi-ondorio,
gorri bizkor ta bortitzen orgian
atzematen gozo puntu argiak,
ene soak "hau larregi da!" dio.*

*Katedraleak hormarik ez, kasik,
materiarik ez, mistika baino,
oro igobehar den beirazko antsiz.*

*Lerroak arin doaz zeruraino
igoeran oro kolorez jantziz,
ziur, inon ez ezer ederrago.*

Frantziak ikonografian, simetrian, gotikoaren transzendentzian gorentasuna bera Amiens-ko katedralean –fedea eta frantziar apoteosi nazionala uztartuz–. Frantzia katolikoa gotikoarekin lotzen da modu berezian, eta edonon teologia eta fedearen sinbiosia islatzen du harri landuen mirarian, nahiz kanpotiko giroa biziki laikoa izan.

Parisko museoetan Louvre ez da bakarra, Rodin, Gobelins, Picasso, Pompidou eta abar bisitagarriak izaki; hala ere, Louvrek du

lehentasuna bere obren ugaltasuna eta kalitateagatik. Museoko areto batean, Donostiatik ezaguna dudan emakume batek begiradak gurutzatzen dizkit, nirekin hitz egiteko asmoz. Irakaskuntzatik eza-gutzen dut bera, eta entzuna dut bidaiak espreski Louvrera maiz egiten dituela. Emakumeak badu xarma fisikoa, ezpain finak, ibilera sentsuala, janzkera exotikoa. Badakit kongresuetara joatea atsegin izaten zaiola –eta psikoanalisiatzko sesioak ere jarraitzen dituela, la-gun batek esan didanez–. Bere eskuetan daraman liburuak, agian, zerikusia du psikoanalisiarekin. Entzuna dut hor nonbait argitaratu duela artikulu luzea Chillidaren artea eta psikoanalisiatz, eta –jakizu, aber– artikulu zenbait pastitxe izan daiteke, psikoanalista asko, azke-nean, burutik nahasia geratzen baita... Bere soak, berriro, “zu he-men?”, “Euskaldunoi ze paranoia gertatzen zaigu?” adierazi bide dit. Oraindik ez diot hitz egin, ze ez da ohartu, agian, oraindik ni neu naizela. Niri, emakume kontuetan, asko kostatzen zait oreka lortzea, inpultsiboa naiz, gaztetan izutia izan nintzelako, eta emakumeak, batzuetan –eta esateak ez al dik gaitzik ekarriko, noiz–noiz baldarra izan naizela bai baitakit– hipokritak dira gizaseme batekiko iritziak jalgitzean. Azken aldian emakume batek “oso ongi idazten duzu” bota zidan, baina gero “halako idazki batean txapuzak dauzka...” hustu zion nire lagun bati. Ahantzi zait, zorionez, lehenetan egin zidan mina, baina auskalo zer pentsatzen jarraitzen duen... Donostiar emaztekoa, orain, Ingresen *Bainua hartzen* koadroa beha dago. Bai, harriztekoa da bera, behin eta berriz, koadro berari beha egotea. Zerbaitek atentzio berezia sortu dio, Louvre honetan edergarri asko baitago betiko Gioconda horretaz gain (esaterako, Tizziano, Veronés, Rubens, Van Dyck –edo eta Georges de la Tour, Lorrain, Wateau, Fr. Millet-en pinturak–. Baldin nirekin topatzean “euskaldunon paranoiak psikoanalisi behar du” botatzen badit, “mediku zoro horiek alferrika-koak dira” erantzunen diot, eta, ausaz, haserretuko da. Izorra dadi-la... Ez dut txantxetarako umorerik.

Konturatu gabe, hurbiltzen ari natzaio, baina bera ez da mugitzen Ingresen koadroaren aintzinetik. Arrimatu ere egin da apur bat hormara detalleren bat atzemateko. Nik esanen nuke obsesioa bilakatu dela batzuegan –politika ez ezik– euskaldun populuaeren jatorria –alegia, endaz kaukasiarrak, bereberrak ala guantxeak garen..., eta iritzi horiek idiotak iruditzen zaizkit (ah, eta, zer esan orain hiru bat mila urtetako egipziar hieroglifikoak euskarara sarturiko hitz lati-

no-erronan bidez diszifratu nahiaz?). Zenbat egin behar fantas-
magoriko! Emaztekiak Ingres-en koadroaren aitzinean dirau oraindik,
eta ni beragandik hurreago. Orain liburua jautsi zaio lurrera, eta
tenore ona sortu zait beragana heltzeko

–Baina, zu hemendik? –liburukia lurretik jasotzean nik. Ezpainak
estutu ditu. Agian, ezagutu nau arestian, nahiz disimulatzen saiatu.

–Ze sorpresa... Donostia erdia hemen kaustitzen da, batzuetan,
ze atzo bertan beste bi paisanorekin topatu nintzen.

–Eta zer duzu Ingresen koadro honekin?

–Zer? Errenazimenduko emakume txitxi-jario eta haragiz ahaltsu
direnak amorratzen naute bere apoteosi somatikoan... Autore hau
lekuz kanpo dago hemen.

–Ez da hainbeste.

–Ezetz? Bere formen biribildurak nabariegia dira; formari zabal-
dura larregi damaio pintoreak; haragiaren morbiditatea bilatzen du
matxizmoz

–Berrito matxismoaz zu? Exajeratzen duzu.

–Aski duzu ikustea emakumearen soina koadrotik atera nahian
dagoela...

–Rubensen pinturatik urrun zaude; hari ere emazteki beteak
atsegin zitzaizkion, eta, hala ere, estimatua da.

–Esan nahi duzuna... *Turkiarren bainu* Ingresen koadroa orain-
dik lotsagarriagoa da; bertako emaztekiek mataderiarako ongi gizen-
duta dauden abereak dirudite...

–Tira...

–Gezurra dirudi XVIII. mendeko pintore batek haragizko hainbat
apoteosi erakutsi beharra. Kiloen arabera estimatu behar al dugu
bere pinturaren balioa?

Badakit nire solaskidea urtetan –dieta latzak eginez– soinetik
kiloak kendu nahian ibili dela, eta, noski –zer espero nezakeen bera-
rengandik?– hainbeste neke eta trabailu ondoren ezin jasan berak
holako koadroa. Eder fisikoaren ereduak, dena den, desberdinak
edo erlatiboak dira, eta esan beharrik ez dago. Horregatik nik:

–Honetan subjektibismoan eror gintezke, non ezin diren egungo
molde estetikoaren arabera epaitu garai bateko koadroak. –Oso serio

so egiten dit emaztekiak; gero irribarre izun bat lehertzen zailo ezpainetan.

–Barkatu, anakronikoa da Ingres.

–Pinturara hurbilketa aurreritzietatik egiten duzu, ausaz.

–Denak berdinak zarete... Banekien zer erantzunen zenidan.

–Poltsatik musuzapia aterata, modu oso delikatuari, errimel-puntuak ukitzen du betondoan; bere musuzapiak perfume sarkorra hedatzen du-. Ingresen pinturak, gainera, badu laketa ez zaidan beste puntu bat.

–Bai ote?

–Lerroak sendoez garatzen ditu.

–Beno ... –Berrito ezpainak estutu ditu zipozki eta aurpegian zimur mikatza jarri zailo sudurraren xoko ondoan. –Ez nahasi gauzak.

–Pintore batek ez du topikoetan erori behar.

Ados nago berarekin pintore baten sona ez duela izan behar aski bere produktua, besterik gabe, onartzeko. Kritiko batzuen "bikaina", "berealdikoa", "mundiala" epitetoak soberan daude. Batzuentzat ez-ohikoa txarraren simila da –eta hor ditugu askoz beranduago Picasso edo Oteizaren lehen kontraerak-. Hala ere nik:

–Behatzen dena gozotasunez ikusi behar da, amoremankorra izan behar du batek, batzuetan.

–Amoremankorra? Kritikak gogoeta eskatzen du, eta horretara etortzen naiz ni leku honetara.

–Ongi da. Ez zaitez, arren, haserretu nirekin, emakume.

Barre egiten du. Gona plisatua darama, belaunetik behera graziaz erortzen zaiona, eta berak badaki gizonetzkoekin –gehienetan– glamourra duela, eta emazteketan niri marimutikoen plantako janzkera eta kerantzak (ile oso moztuak, galtzak, feminitate urriko koloreak azaleran..) ez zaizkit atsegin izaten... Dasaidan egia, emakumeen gustoekiko lehendikoa nauzu, ez naiz aldakorra, nahiz horren aipian, beharbada, matxismoaren ukituren bat egon...

–Adiskide, jakin ezazu, nahiz ni museoen bisitaria izan, beste alde batetik pena ematen didatela areto hauek artearen almazen huts bilakatzen direlako; hainbeste koadro pilatzeak antologiaren gezur bera islatzen du. Ongi da maisuen obra (edo nahi baduzu obramail-

suak) ezagutzea, baina hobe emaitza horiek jatorrizko giroan kon-
tenplatzea. Hau dena estereotipoan geratzeko arriskuan dago.

Onartzen dut berak esana, baina ez diot arrazoia erakutsi nahi.

–Baina nolatan ikusi obra eder hauek areto hauetan ez baleude?
Mundu guztiari bira eman behar genioke hemengoak dastatzeko.

–Esan nahi duzuna... Denok erosoegiak gara, demontrel!

–Baliteke...

Bera agurtzean listua irensten dut; bere begiradak zerbait
itsaskorra du, eskua estutzerakoan bezala atzematen duen zerbait.

Bi egun igaro eta, Picassoren museora hurbiltzen naiz. Pinto-
reak ez du aurkezpen beharrik bere genialitate guztizkoan. Bertan
203 pintura, 19 bat baxuerliebe, 88 zeramika, 1500 bat marrazki.
Orobat, ederrets daiteke Cézanne, Matisse eta Miróren pinturarik,
arte modernoaren sinbiosia lortuz. Arte honen zati bat gustatzeko
lehendik inpresionismoa onartzetik –eta dastatzetik– hasi behar da
(argiak trataera berria du, lerroak linealtasunean askatasun berezia,
trazoa eta superfiziaren ihesia zatikatuagoa –eta subjektiboagoa– da,
eta zer esanik ez surrealismoaren irudimen-hatsa bere bapatekota-
sunean...). *Objectum*-etik hainbat ihes egin duen arte berriak gogoe-
ta-kutsu gehiago du, irudimenak kripto sentsazio irrazionaletara da-
rama ikuslea... Egitatea eta oniria, objektibitatea eta subjektibismoa
gurutzatuta, gero eta gehiago, askatasunak autonomia *irrazionalaren*
ildoan bereganatzen du. Poeta garenok, ongi dakigu zer den arte
berria, kanpoan ikusiak ze oartzun animikoa duen moldean. Niretzat
halako lotura dago pintura eta poesia “irrazionala” edo surrealistaren
artean, ederraren alde modu berezian sentituz.

Kolore leun ta bortitzek

begi izuei eraso,

begiok ez atsedenic

(mozkorturik al nago?),

uztaren emanaldia

ugaria zeharo,

so geldian atzemana

bihurtzen zaida bertso...

Picassoren museoan kubismoak presentzia berezia –molde zi-
lindrikoak, kubo-moldeak pinturaren interpretapen berri dira, nexoa
egitate fisikoarekin modu berrian eginez–; asmamenaren metafisika

berezia du pintura horrek, gauzakien kerantza zuzenegiak saihesten ditu, eta oniriak eta aluzinazioak garapen apatak dauzka. Arte modernoan ideiak autonomia osoa irabazi du interpretazioetan.

Paris utzita, Versaillesko jauregiaren eder-enporioak behatzera abiatzen naiz. Ederlan profanoetan bera da Europa puntakoenetakoa, ze lorategietan fantasia da nagusi ehundaka geometri-joko landare eta zuhiaketa. Parkean zuhaitz exotiko anitz, landareria nabarra, iturrietan kiribiloak, seirehun bat surtidore han-hemen, italiar moldeko landare-jokoak eta estanke eta ubide lerdenak. Trianon marmol berde eta arrosen dotorezia, atalburu eta glorieta begetalen forma gangatuak. Luis XIV.aren harrokeriak (eta ahalmen ekonomikoak) luxu eta punpeziaz –urre isuriaren distiren apoteosiaz– jaso zuen jauregia edonon edergaiak, plegu landuak, molde eta oihal kapritxosoak, tapiz preziatuak, freskoz hornituriko sabai ikusgarriak eskainiz turistari (eta, oraindik, Maria Antonietaren gela aparta, kaperara nagusia, altzairu zenbaitetan agertzen diren agata, xaspe, zafiro edo onize harrien inkrustazioak, beira polikromatuak, koadro galantak, ontziteria aparta, tailaketa finak, kristal biselatuak, kamafeo ongi hornituak, lapizlazulizko medailoiak kolore urdinekin, oro ederrezko zorabio lerden dela...). Mitologia ugari, orobat, bertan ninfak, faunoak, lore-pilozko guneak enfasetan biltzen direla (eta *Galera Handian* eserleku bitxiak, urre eta zilarraren distira, filigranen trebezia apartekoa, pintura eta freskoen aberastasuna). *Urrats galduen aretoa* deiturikoan, halaber, detalle preziatuen orgia.

Bai, hainbesteko apaindukiak okidura sortu dit, begia harrokeria estetiko kolpatu dit –zentzunak ederrez mozortu–, baina halako aberastasuna eta altxor-piloa lapurretaz baino ez dela bildua izan pentsatu dut, eta triste jarri naiz, errege ahaltsuaren peko herriak morroi izaten jarraitu baitzuen. Luis XIV.a erregearen imajina harrokeriarekin lotuta dago. Herri xeheak zer esan behar du?

Jauregia ikusita, nik ere halako jaktantziak ondoko jatetxe batean izokina eskatzen dut –eta ondoren Saint Jacques-en kokilak, baratxurizko saltsan atunduriko eskalopea, eta entsalada aski ozpindua, eta, postre bezala, Frantziako gazta zuri eskisito horietako bat, Chantilly izozkia osagarritzat duela. Alajaina, errege ez garenok ere baditugu, noiz-noiz, gure eskubideak... Dena Luis XIV.a eguzki-erregearen oroietan. Bejondeiolal

Schönbrunn Europaren bihotzean

Austriara bidaia, kotxez egiten dut, bertara sarrera Suizatik barena osatuz. Ene asmoa alemaniar hizkuntzaren hasimasiak Vienan –aste batzuetan– gotortzea da. Hizkuntza horrek bere sendotasuna eta lexikogenesia aberatsez xarma berezia du niretzat; euskarak baino oraindik modu garatuagoan hitz berriak sortzeko ahalbidea du alemanierak, eta hori mirestekoa da. Nire aurrerapenak, hala ere, alemanieraz eskasak izanen dira Austrian eginen dudan epearen laburtasunagatik.

Suizan Ginebra hiriak dotoretasun arraia eskaintzen dit jauregi, iturri eder, katedral kalbinista eta bankuen punpeziarekin. Rodano ibalaren zabaldurak nabarmen bere gardentasun berdoxtan. Zurich-en lehen hizkuntza-arazoak jasaten ditut, bertan harremanak alemanieraz egin beharrekoak baitira, frantsesaren ordez, eta ni ez naiz eroso konpontzen.

Suizak, ikusi ahala txunditzen du bat bere paisaiaren nabartasun txukunaz (Luzernan, adibidez, inguruko mendien berdea eta elurra-
ren zuria aintziraren ispilutara erorita ikus daiteke, ikuspegiari postal baten txairotasuna egotziz). Austriara Voralberg eskualdetik sartzen naiz, mendi-zehar eta malda garaietan oholezko etxeño eta bordak berdearen maindirean behagarri direla. Paisaiak badu Euskal Herriko ibarren antzik, nahiz hangoak gureak baino artifizialagoak izan, agian. Gailur gorenetan elurra nagusi, eta zuriaren kontrastean karaitzeko arrokadiak. Etxeen eraikuntzan zurak protagonismoa eta finezia du, ate, leiho, teilatu-hegaletan bera langai delako (eta, orobat, balkoi edo galarietan loreen apoteosia zuri-gorrian, gure baserriena baino xorgintasun garatuagoa lortuz). Iparreko Euskal Herriak, dena den, badu kerantzarik aski austriar esku hauekin... Besteen artean, Bregenz, Brandeertal, Lünersee tontorrak –eta goi-aintzirak– konteplazten ditut, ingurunearen orografia ur hotz-txukunetan kopiatzen dela. Esan dugunez, denak postal inpekable –ezin hobe– horietako baten imajina xarmant dira niretzat (gezurrezkoa ere badirudiela, batzuetan, ederraren berezitasunean...). Mendien bizkar, pendoitz eta zintzurretan naturaren handitasuna harro.

*Tirol garaietako oihanak
berdearen mirari,
ortzi urdina lakuetan
abstraktu, biluts, jori,
elurra eta aintzira aratzek
begi ona elkarri
(esan, zeren susmoak nau
Tirolera ekarri?),
haitzak, pendizeak, mendiak
margoetan igeri,
austriar landa atzematean
gogoan Esukal Herri...*

Insbruch hiria gibelean utzita, Salzburg-era noa Tirolen, ezker-eskuin, zuri gordin eta berde seriozko paisaiak –eta arrokadien grix-tasun hotzak – behatuz. Mozart jaio zen hirira hurbiltzen naiz bere eder-giroan murgiltzeko. Bertan hil zen Mozart 1791.ean, eta, esaten dutenez, bere gorpua hilobi amankomun batean ehortzi zuten, izurritearen kariaz. Nola daiteke hori? Mozarten jaiotetxea astiro bisitatzen dut, gelak, aretoak, armairu, musika-tresnak, partiturak eta beste oroigarriak begion gustagarri direla. Arratsaldean, schillings dexente ordainduta, musika-hall horietako batean kontzertu berezia entzuten dut, ene belarria musikariaren doinu-harietara osoro jartzen dela. Merezki zuen hainbeste schillings xahutzeak halako finezia melodikoa entzuteko... Orixek, Argentinan, J.S.Bach-en fuga –Gaztelu poetaren eskutik organoan entzutean– idatzirik poema ene baitara: “Geroan batean / organuak soiñuz / fuga bat asten du, / bai baitakit buruz. / Ez dut aski oroiz, / bear dut adituz; / belarrik narama / barnari lagunduz...”.

Salzbourgeko edaritegi elengante batera sartzen naiz; nire hizkuntz-oztopoek jarraitzen dute bertan, baina diruak gailentzen ditu neke guztiak. Hiriko etxeak teilatu zapalekoak dira, hegalek zurezko teilaketa bitxiak dituzte. Katedrala XVII. mendekoa da, eta hirurogei eta bederatzi metroko altuera du; barruan nabe garaiak, marmol bitxiz landuriko pulpitu miragarria eta erretaula txit ederra. Organojoaldi bat entzuteko parada ere badut, tenplo osoa bere doinuaren hordiaz betea sentitzen dudala. Orixek, berriro, gerundio-saldoak erabiliz organoaren ukitua espresatzen digu: “Asi da, ari / iruten, ariltzen, / ekin eta jarrai / bilbatzen, eiotzen. / Ari -albiñua / sei notak

atontzen; / aiek, itzul, iraul, / iñoiz ez aspertzen / itokin antzera / biotz au xulutzen”.

Hirian bi bat egun igarota, Vienarako norabidean jartzen naiz, baina lehenago nazien Mathausenen naziek kontzentrazio-zelaia ikusteko nahikaria dut. Nork ez ditu entzun ikaragarriak bertako egonlekuaz? Euskal Herritik hurbil, Biarnon paratu zen Gurs-eko zelaia, baina Mathausen-ekoa okerragoa izan zelakoan nago. Bertan berrehun mila gizasemek herioa jasan zuen, eta tortura-gelak, gasketiak, museoak ikusteak hotzikara sumatzen dut. Museoan, esaterako, preso hildakoen koipe eta gantzaz eginiko sego eta xaboiak erakusten zaizkio turistari. Bihotza beheratzen da, espiritua disturbatzen halakoa behatzean.

Vienara allegatu bezain azkar ustekabekoa gertatzen zait. Tren-geltokira hurbiltzen naiz schilling billete batzuk aldatzeko asmoz, baina ezin ni ulertu eroso alemanieraz lehiatilako agentearekin, eta tartean gizaseme gazte bat sartzen da laguntzera –berak ingelesa badakiela eta–. Bera izanen da une hartan nire salba-bide. Ingelesezt azaltzen diot zer nahi dudan egin zehatz, eta lehiatilakoari ene asmoak erakusten dizkio. Eskuetan, ondoren, schillings-l mordoak jasotzen dut nire pezetzen truke Dena amaitzean, nola ez, kafea hartzera gonbidatzen dut niregatik eginak eskertzearren. Solas egiten dugu Vienaz, zertara naizen heldua bertara, ostatua non hartzekoa naizen, eta abarretaz. Azkenean, txanponik ez dudala oraindik eta, ehun schillings-eko billete eskerga (milaka batzuk pezetakoa) ateratzen dut patrikatik kafeak ordaintzeko. Billetea hartzen dit eskuetatik, eta mostradorera edariak ordaintzera bera joanen dela esaten. Gehiegi fidatzen naiz, tamalez. Hiru bat minutu igarota ohartzten naiz gizaseme gazteak ez duela itzulerarik ni nagoen mahaitxora. Nire schillings guztiekin ospa egin du; ezmezean geratzen naiz, baina alferrik. Hura izaten da Viena hiriburuko nire lehen esperientzia.

Ostatua ia lauroegi urte dituen emakume baten etxean hartzen dut. Hitz urriko emakume zimela da bera, ingeles zipitzik ez dakiena. Etxeak sabai altuko gelak ditu, korridore luzeak, leihotzarretan gortina garaiak. “Herr Muxika” deitzen dit, eta nik nekeak ditut berarekin ulertzeko. Geroago jakinen nuen emakume adinekoak Vienako dialekto berezian solas egiten didala, bion harremana galtzagoa bihurtuz. Gosarietan erruz jaten dut –gurina, mermelada, zerrikia, fruta,

katilu-esne galanta... Damak katua du etxean, nahiz animaliak nire usnak arbiuatu, ze ikusi ahala ezkututzen zait.

Vienan, aski hurbil dut Unibertsitatea, bertako jantokian eguerdiko bazkariak egiten ditudala. Aldemanean, berriz, Votivkirche eliza galanta, kasik, austriar inperioaren mausoleo dena bere hilobi eta orogailuekin. Hiriburuak museo, parke, jauregi eta eraikuntza lerdin asko du edonon. Hausbourgotarren itzala eta loria, batez ere, Hofbourg delakoan da nabari. Stephansdom katedralak, berriz, ehun eta hamazazpi metroko dorre garaia dauka; mendebaleko ataria erromanikoa du, aldare barrokoak ditu, eta atari nagusian herensuge, lehoi, narrasti eta hegaztien imajinak. Barruan Federiko III.a enperadorearen mausoleo bikaina (eta ni, lau aldiz gutxienez, arri-matzen naiz katedralera organo erraldoiaren doinuen entzuteko, katedraleko nabeak musikaren bozkarioz osoro beteak atzematen baitira).

Hiriak kale dotoreak, kafetegi zabalak, kale-zirkilu buhemetsu eta alaiak dauzka, kale-kantoieta musika modu sotilez entzun daitekeela, biolin-joleei esker. Dotorea eta luzea hiri Erdiko ibilbidea, Parlamentua, Natura, Historia eta Artearen museoa, Rathaus eta abar bertan daudela. Arratsalde batzuetan, Rathaus-eko parkean musika klasikoa entzuteko parada izaten dut.

Hiriko eraikuntzetan gailenena Hofbourg jauregi erraldoia da, Austriako enperadoreen egoitza izana. Barruko gelatan altxor anitz agerian: tapizak, oihalak, altzariak, kutxak, bestelako edergailuak. Lehen solairuko apartamenduan kristal finak, baxera dotoreak, altzari distirantak, eserleku tailatuak. Urreak –beste jauregietan bezala– likidozkoa dirudi, edergailuetan bere isuria jarriz. Bigarren solairura igotzean, ustekabea, alemaniera akademian ikasten duen gazteiztar lagunarekin topo egiten dut.

–Hi hemen? –berak aurrea hartuz.

–Nonbait, biok antzeko gustuak ditiagu... –begirada nik bere janzkeran dudala. Ezin dut disimulatu ustekabekoa.

–Zer deritzaik hemen hainbeste altxor pilaturik egoteari? –une horretan bera zafiroz eginiko medailoi batera beha dago.

–Beno...

–Hau austro-hungariar koroaren ahalmen ekonomikoaren erakusketa pedantea baino ez duk.

–Suposa hezakean horrelakoak zeudela hemen... Baina, altxor guzti hau –estetika bilakatu ez bazen– orain, ausaz, gerra batean jndea akabatzeko kanoi-piloa bihurturik egonen zuan... Behatua kritika erakartzea laket zaik hiri. Zergatik ez dastatu ederra –besterik gabe–?

–Arrazoa duk, baina estetika ez duk etikatik desitsatsi behar.

–Hago... –Ezpainetako irribarre-zimurra disimulatzen ahalegintzen naiz, nahiz kera artifizialean...–. Beha, larrosa bat kontenplaztean zergatik jarri begia orripean duen arantzean? Ederra dohan ematen zaiguk, adiskide, eta niri ederra bere gratuitatean mirestea gustatzen zaidak. Estetikaren handitasuna bere egitate biluzian zegok, lehen kolpean emaniko oparian.

–Alferrik duk honetaz jardutea –ezpainak erdeinuz mugituz–. Ba al dakik Rathaus-eko jardinetan musika-kontzertua dagoela gaur arratsean? Kafe-kikara on bat hartuz gauza hauetaz luzexeago hitz eginenndiagu...

–Ongi.

–Arratsalde arte.

Vienan, hala ere, eraikuntzarik xoragarriena Schönbrunn jauregia da, dudarik gabe. Bertako estankea arras bitxia da, ninfa zuri, zisne, lorategi ongi landu eta glorieten apoteosian. Landarez hornituriko bidexkak ageri dira edonon, mitologiari atxikitako guneak, eta Palmenhause ondoan geometri-jokoz garaturiko zirkulu, izar eta laukiak.

Jauregira sartuta begiek apaindura sotilak behatzen dituzte, dotorezia aparteko gela eta aretoak, armiarma-lanparak, eserleku tapi-zatuak, oihal luzeak, altzari landuak, distira darien baxerak –edo urrean eginiko horma-tira bertikalak, urrea likidoa baillitza begi zortuon zorabioan barreiatzen dela–. *Gobelinsalon* delakoan lanparek argi-txorrotak botatzen dituzte, eta altzarietan distira aparta xorgindurik itsatsia geratzen da. Orobat, *Vieux Laque-Zimmer* gelan urrezko lineadurak hormetan –xafa estuetan emanak–, inkrustazio bikainak, koadroen ondoan bertikalki jausten diren urrezko kapritxoak, estria arrai eta lerdanak, begiok –sorpresatik sorpresara– ederrez mozortzen direla. *Napoleonzimmer* delakoan, berriz, Bruxelako tapizen finetia, altzari klasikoen lillura –Versallesko apoteosiaren parekotasunean–. Hala ere, Schönbrunneko ederraren gailurra *Grosse Galerie*

deituriko areto luze eta lerdenean atzematen da, non, sartu ahala, begiak sabaiko estuko, freskoen malgutasuna, pintura sotil, altzarien dotorezia eta altzarien xorgintasunagatik besteturik sentitzen diren –goitik-beherako filigranen edertasunak, modu berezian (eta zergatik exajeratu?) azkenik ez duela–. Altzarien lineadurari argien joritasun eskisitoa dagokie, simetria bitxien finezia. Oro fantasia suhar baten emaitza da, ederraren miraria, koloreen leherketa (aretoa Mozart edo Haydn baten musika entzuteko oso aproposa dela). Bai, musika gozoago dasta daiteke hainbesteko finezien artean.

Ene gogora Jean Etxepare, prosa sendoko idazleak, Loiolako santutegira eginiko txangoan ukaniko inpresioak: "Austriatik ekarria izan da *lapis-lazuli* deritzaien marbre hura. Eta biderditarik so egoiten banatzaizko kaperañoaren buru-aldeari, han ginen guziak orduan egon ginen bezala, aithortzeko zinuke xedea bethe zutela osoki: begiak goxatuaren-goxatuz, bihotzaren beraztea baitzitaken. Xede hori bera zuketzen segur, ezen, gainera, bertze hiru paretak onyxez apainduak dira; xafra neurrikoetan onyxa, hunen mamiko zain gorratsek izariz zezaten ager beren argia, aldare-tokikoaren ez bortizteko". Egia esan, Schönbrunn-en nire begiok behatua –argiz, artez, zein fineziaz– oraindik areagoa da, eta gaur ere orduko inpresioen gozoan nauzu.

Ez da eguna
bezin gau argirik
eta ez da zerua
bezin ate zabalk
Ez da zire negarra
bezin arrosa bizirik
honekare itakizten dituz
argirik distratsuena
eta zabalkirik mugagabeena
zire izaren garizpean

Dentzararen labarrek
ez daturate amildegi
eta antziki piegatuek
ezer idata ez dutenean
sentimenduen emozioetan
biatzen gara